

(Ohar hau berrikusi egin da, idazketan egindako akats batek ez baitie datuei eragiten, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren posizioari baizik)

Euskal AEko Genero berdintasunaren indizeak hobera egiten jarraitzen du, eta 100etik 73,1 puntutan dago

Baliorik altuenak Osasuna, Dirua eta Enplegua dimentsioetan daude, eta baxuena Boterean

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko Genero Berdintasunaren Indizea (GBI) 100etik 73,1 puntukoa izan da 2019an (eskuragarri dagoen azken urtea). 2010. eta 2019. urteen artean bost neurketa egin dira, eta Euskal AEko GBIren balioan ondoz ondoko aurrerapenak izan direla ikusi da: 2010ean 68,9 puntu izatetik 2019an 73,1 puntu izatera igaro da, hau da, 4,3 puntu hobetu da.

Genero berdintasunaren indizea adierazle sintetikoa da, eskala adimentsional batean laburbiltzen dituen (non 1ek erabateko desberdintasuna adierazten duen eta 100ek erabateko berdintasuna) gizonen eta emakumeen artean oraindik ere dauden desorekak beren ongizatean eta garapen pertsonalean eragina duten alderdi garrantzitsu batzuetan.

Osaketa honelakoa da: 31 adierazle, sei dimentsiotan hierarkikoki egituratuta eta hauek, era berean, 14 azpidimentsiotan.

Eustatek Euskal AEko Genero Berdintasunaren Indizea (GBI) egiten du Genero Berdintasunerako Europako Institutuaren (EIGE) metodologia erabiliz. Horri esker, Euskadin genero-berdintasunean egindako aurrerapenak Europar Batasunak eta bertako 27 herrialdeek eskaintzen duten erreferentziarekin aldera daitezke, bai eta 2010., 2012., 2015., 2017. eta 2019. urteetan izandako bilakaera ere.

Genero berdintasunaren indizearen bilakaera Euskal AEn, dimentsioen eta subdimentsioen arabera. 2010-2019

	2010			2015			2019		
	Euskal AE	EB-27	Espainia	Euskal AE	EB-27	Espainia	Euskal AE	EB-27	Espainia
Genero berdintasunaren indizea	68,9	63,1	66,4	69,3	65,7	68,3	73,1	68,0	73,7
Enplegua	70,6	69,7	71,8	72,2	70,6	72,4	74,6	71,6	73,7
parte-hartze	76,7	77,6	77,0	80,6	79,2	78,0	83,0	81,3	80,2
Banantzeari eta lanaren kalitatea	65,0	62,6	66,9	64,7	62,9	67,3	67,1	63,1	67,8
Dirua	83,1	79,1	77,1	84,5	80,1	75,9	85,4	82,4	78,4
Finantza-balabideak	73,6	70,6	70,4	76,1	73,9	71,0	80,7	76,9	73,5
Egoera ekonomikoa	93,8	88,7	84,4	93,9	86,7	81,2	90,3	88,3	83,7
Ezagutza	61,2	59,8	63,5	63,9	62,4	65,3	65,6	62,7	67,9
Lorpena eta parte-hartzea	70,6	66,0	71,8	70,8	71,2	73,3	74,8	72,5	76,4
Banantzea	53,0	54,2	56,2	57,7	54,7	58,1	57,6	54,1	60,3
Denbora	73,4	65,2	60,8	70,7	64,9	64,0	74,1	64,9	64,0
Zaintzei lotutako jarduerak	88,7	65,4	60,9	89,3	69,1	74,5	93,7	69,1	74,5
Gizarte jarduerak	60,8	65,0	60,6	56,0	61,0	55,0	58,5	61,0	55,0
Boterea	54,3	41,9	52,6	52,9	48,4	57,0	62,7	55,0	76,9
Botere politikoa	81,7	47,5	73,7	80,4	53,0	72,3	96,7	58,5	86,5
Botere ekonomikoa	38,6	29,0	33,3	36,3	39,2	43,5	45,1	48,8	70,1
Botere soziala	50,7	53,2	59,4	50,7	54,5	58,9	56,5	58,2	75,1
Osasuna	91,3	86,7	88,6	90,9	87,1	89,6	92,4	87,8	90,3
Osasun-egoera	97,0	90,4	92,4	96,2	90,9	93,2	97,2	92,1	95,2
Jokabide osasungarriak	80,6	74,8	78,6	80,6	74,8	78,6	81,3	74,8	78,6
Osasunaren eskuragarritasuna	97,4	96,2	95,7	96,8	97,0	98,3	99,8	98,2	98,6

Puntuazioak 1etik (erabateko desberdintasuna) 100era (erabateko berdintasuna) doaz


Data 2022ko Maiatzaren 31a

Oinarria: Eustat. Genero berdintasunaren indizea eta EIGE

Osasunaren dimentsioa da (92,4 puntu) berdintasun osora gehien hurbiltzen dena genero desberdineko pertsonen artean, baina kontuan hartu behar da ezen kasu horretan desberdintasun txiki hori emakumeen egoera hobearen ondorio dela.

Beste muturrean, **desberdintasun handiena duen dimentsioa Boterea da**, 100etik 62,7 puntuko adierazle partzialarekin. Zehazki, botere ekonomikoari dagokion eremuak eduki du baloraziorik txarrenea (100etik 45,1).

Genero berdintasunaren indizearen adierazleak, dimentsioen arabera. Euskal AE, Espainia eta EB-27. 2019



Oinarria: Eustat. Genero berdintasunaren indizea eta EIGE

Euskal AEk EB-27ko batezbestekoak baino puntuazio hobea lortu du dimentsio guztietan, eta hamalau azpidimentsioetatik hamaikatan


Euskal AEn, genero-berdintasunari dagokionez, 2019ko baliorik handienak *Osasunaren*, *Diruaren* eta *Enpleguaren* dimentsioetan lortu dira, eta baliorik txikiena, berriz, *Boterearen* dimentsioan. EB-27ko batezbestekoari dagokionez, puntuazio handiagoa du dimentsio guztietan, eta gehieneko aldea 9,2 puntukoa da, *Denbora* deritzon. Hala ere, dimentsio horren barruko esparru batean, gizarte-jardueretan emandako denborarenean, Euskal AEk 58,5eko balioa lortu du, Europako 61,0aren azpitik. Beste bi azpidimentsioak zeinetan Euskal AE azpian baitago botere ekonomikoa eta botere soziala dira.

2010 eta 2019 artean, GBIn dimentsio guztiek hobera egin dute

2010 eta 2019 artean, Euskal AEko GBIn hobera egin du: 68,9 puntu lortu zituen 2010ean, eta 73,1 puntu lortu ditu 2019an.

Era berean, genero-berdintasunaren adierazleek hobera egin dute dimentsio guztietan, batez ere *Boterean*, non adierazlea 8,4 puntu handitu den, batez ere *Botere politikoaren* hobekuntzagatik; izan ere, 2010ean 81,7 puntu izatetik 2019an 96,7 puntu izatera igaro da. Gehien aurreratu duten hurrengo dimentsioak *Ezagutza* eta *Enplegua* dira, 4,4 eta 4 puntu hobetu baitituzte, hurrenez hurren.

Genero berdintasunaren indizea, herrialdeen arabera. 2019



Oinarria: Eustat. Genero berdintasunaren indizea eta EIGE

Euskal AE Irlandaren mailan dago, zazpigarren postuan Europar Batasuneko 27 estatu kideen rankingean, inguruko beste herrialde batzuen antzera.

Espainiako Genero Berdintasunaren Indizea 73,7 puntukoa izan da 2019an, Euskal AEko 73,1 puntuak baino 0,6 puntu gehiago. Hala ere, dimentsioen sei adierazle partzialetatik lautan Euskadi Espainia baino balio altuagoetara iristen da: Espainiaren emaitzak luze-zabal gainditzen dituen dimentsioa *Denborarena* da, non distantzia 10,1 puntukoa den, baina aurretik dago, halaber, *Diruaren* dimentsioan (+6,9), *Osasunarenean* (+2,1) eta *Enpleguarenean* (+0,9); aldiz, atzetik dago *Ezagutzaren* dimentsioan (-2,2) eta, batez ere, *Boterearen* dimentsioan (-14,2), non azpitik dagoen *Botere sozialean* (-18,6) eta, bereziki, *Ekonomikoan* (-25), nahiz eta Euskal AEko *Botere politikoaren* adierazleak 10,3 puntutan gainditzen duen Espainiakoa.

2019ko genero-arrakala nulua da Osasun-arretaren eta Laguntza odontologikoaren adierazleetan, baina oso handia Botere ekonomikoaren eta Botere sozialaren adierazleetan

Europar Batasunarekiko eta herrialde kideekiko alderaketaz gain, Euskal AEko barne-egoera ere azter daiteke genero-arrakalaren adierazlea erabiliz, hau da, lehen deskribaturiko arloetan gizonen eta emakumeen artean dagoen aldea, 0tik (erabateko desberdintasuna) 1era (berdintasun osoa) bitarteko balioak dituen.

Horrela, egiazta daiteke generoen arteko arrakala nulua edo oso txikia dela osasunarekin lotutako osagaietan, hala nola *Osasun-arretan* eta *Laguntza odontologikoan* (1,00 bi kasuetan), *Osasun onarekiko bizitza-urteetan* (0,99), *Norberaren osasunaren gainera pertzepzioan* (0,97), *Bizi-itxaropenean* (0,97) eta *Tabakoaren eta edari alkoholadunen kontsumoan* (0,94). Oso txikia da, halaber, *Etengabeko prestakuntzan*, *Legebiltzarreko ordezkapenean* eta *Diru-sarreraren banaketan* (0,99 kasu horietan guztietan).

Generoko etena Euskal AEn genero berdintasunaren indizearen osagaien arabera. 2010-2019

	2010	2015	2019
Lanaldi osoko enplegua	0,80	0,82	0,82
Lan-bizitzaren iraupena	0,90	0,95	0,96
Banantzea jarduera-sektoreka	0,47	0,49	0,44
Arrazoi pertsonalengatiko eta familia-arrazoiengatiko lan-malgutasuna	0,87	0,83	0,94
Itibide profesionala	0,99	0,99	0,99
Alokairuak	0,89	0,88	0,90
Sarrerak	0,97	0,98	0,98
Pobrezia-arriskua	0,97	0,98	0,98
Diru-sarreraren banaketa	0,98	1,00	0,99
Goimailako ikasketak	0,95	0,95	0,92
Etengabeko prestakuntza	0,98	0,95	0,99
Banantzea ikasketa-eremuen arabera	0,62	0,66	0,66
Pertsona-zaintza	0,83	0,83	0,90
Etxeko jarduerak	0,94	0,95	0,97
Kirol, kultura eta aisiako jarduerak	0,93	0,89	0,95
Boluntariotza eta ongintzako jarduerak	0,94	0,93	0,95
Gobernuko ordezkapena	0,73	0,65	0,93
Legebiltzarreko ordezkapena	0,89	0,85	0,99
Lurralde batzarretako ordezkapena	0,82	0,90	0,98
Enpresa-zuzendaritza	0,26	0,34	0,49
Banku publiko eta erdipublikoetako zuzendaritza	0,50	0,38	0,40
I+Gko finantzazio publikoa	0,51	0,51	0,38
Komunikabide publikoak	0,67	0,67	0,96
Kirol federazioak	0,33	0,33	0,34
Norberaren osasunaren gaineko pertzepzioa	0,98	0,97	0,97
Bizi-itxaropena	0,96	0,96	0,97
Bizi-urteak osasun onarekin	0,98	0,98	0,99
Tabako eta alkoholdun edarien kontsumoa	0,94	0,94	0,94
Bizitza-ohitura osasuntsuak	0,85	0,85	0,86
Osasun-ateztioa	1,00	1,00	1,00
Laguntza odontologikoa	0,98	0,98	1,00

Generoko etena emakumeen balioaren eta gizon eta emakumeen batez besteko balioaren arteko ratioa da, 0 balioak erabateko desberdintasuna eta 1 balioak erabateko berdintasuna adierazten duten eskala batera bihurtuta.

Data 2022ko Maiatzaren 31a

Oinarria: Eustat. Genero berdintasunaren indizea

Aitzitik, genero-arrakala handienak *Kirol-federazioetan* (0,34), *I+Gko finantzaketa publikoan* (0,38), *Banku publiko eta erdipublikoetako zuzendaritzan* (0,40), *Jarduera-sektoreen araberrako bereizketan* (0,44), *Enpresa-zuzendaritzan* (0,49) eta *Ikasketa-eremuen araberrako bereizketan* (0,66) gertatu dira. Azken horietan guztietan, generoaren araberrako aldeak mantendu egin dira.

2010. urtearekin alderatuta, bilakaera positiboak eta negatiboak izan dira, baina nabarmentzekoak dira *Komunikabide publikoetan* (0,67tik 0,96ra) eta *Enpresa-zuzendaritzan* (0,26tik 0,49ra) izandako hobekuntza eta *I+Gko finantzaketa publikoa* (0,51tik 0,38ra) eta *Banku publiko eta erdipublikoetako zuzendaritza* (0,50etik 0,40ra) adierazleen narriadura.

Genero-berdintasunaren indizeak hobera egin du Euskal AEko hiru Lurraldeetan ere

2017 (kalkulatzen diren lehen urtea) eta 2019 artean, hiru lurraldeetako GBIak hobetu dira, eta bereziki Bizkaikoa, non GBI 2,4 puntu igo baita. Horrela, Bizkaiak murriztu egin du Arabatik eta Gipuzkoatik bereizten duen aldea, genero-berdintasunaren arloan dituen

lorpenei dagokienez. Bestalde, Gipuzkoak lehen postuan jarraitzen du, Bizkaikoa baino 1,6 puntu handiagoa den eta Arabakoa baino 1,3 puntu handiagoa den GBIrekin.

Genero berdintasunaren indizea Euskal AEn, lurralde historikoaren arabera. 2017-2019

	Euskal AE		Araba/Álava		Bizkaia		Gipuzkoa	
	2017	2019	2017	2019	2017	2019	2017	2019
Genero berdintasunaren indizea	71,1	73,1	70,9	72,2	69,5	71,9	72,5	73,5
Enplegua	72,5	74,6	72,4	75,1	71,5	73,6	74,1	75,4
parte-hartze	81,9	83,0	83,0	84,1	81,0	82,2	83,2	83,8
Banantzeari eta lanaren kalitatea	64,2	67,1	63,1	67,1	63,2	66,0	65,9	67,8
Dirua	83,7	85,4	83,5	84,9	82,3	84,5	86,9	86,4
Finantza-baliabideak	76,5	80,7	74,7	80,5	76,3	80,3	77,8	81,5
Egoera ekonomikoa	91,5	90,3	93,4	89,5	88,8	88,9	97,2	91,7
Ezagutza	65,2	65,6	64,0	63,9	64,8	66,5	65,5	64,8
Lorpena eta parte-hartzea	73,1	74,8	70,9	70,9	72,3	75,8	73,3	74,5
Banantzea	58,2	57,6	57,8	57,5	58,1	58,4	58,6	56,4
Denbora	72,4	74,1	71,9	71,5	71,4	72,6	73,3	75,1
Zaintzei lotutako jarduerak	88,4	93,7	87,8	94,6	88,5	93,0	88,3	94,3
Gizarte jarduerak	59,3	58,5	59,0	54,1	57,6	56,8	60,7	59,9
Boterea	58,0	62,7	58,6	61,5	53,8	58,6	60,3	63,3
Botere politikoa	87,7	96,7	87,7	93,5	72,9	83,6	91,7	92,1
Botere ekonomikoa	41,3	45,1	39,2	40,8	41,4	44,4	41,9	46,1
Botere soziala	53,9	56,5	58,4	61,1	51,5	54,1	57,0	59,6
Osasuna	92,4	92,4	93,7	93,4	92,5	92,5	91,7	91,9
Osasun-egoera	97,3	97,2	98,0	96,9	96,8	96,6	97,7	98,3
Jokabide osasungarriak	81,3	81,3	84,3	84,3	82,1	82,1	79,0	79,0
Osasunaren eskuragarritasuna	99,8	99,8	99,7	99,7	99,7	99,7	99,9	99,9

Puntuazioak 1etik (erabateko desberdintasuna) 100era (erabateko berdintasuna) doaz

Data 2022ko Maiatzaren 31a

Oinarria: Eustat. Genero berdintasunaren indizea

Desberdintasunik nabarmenenak, horrela hartu ahal badira, Boterearen dimentsioan daude, non Gipuzkoak 4,7 puntuko abantaila duen Bizkaiaren aldean, eta 1,8 puntukoa Arabaren aldean.

Gipuzkoak ere puntuazio hobeak lortu ditu Enpleguaren, Diruaren eta Denboraren dimentsioetan, eta, horren ondorioz, Genero-berdintasunaren indizea 73,5 puntura iritsi da; ondoren, Araba (72,2) eta Bizkaia (71,9) daude.

Datu horien arabera, Gipuzkoako genero-berdintasuna Europako seigarren herrialdetik hurbil dago rankingean, Suediaren, Danimarkaren, Herbehereen, Frantziaren eta Espainiaren atzetik.

Genero-berdintasunaren indizea. Egiturazko adierazleak

Informazio metodologikoa:

·Oinarrizko metodologia

·Adierazleen zerrenda

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62